

## **Funtsezko elkarteak**

Aliantza mota bakoitza ondo berezitako estrategien emaitza da.

Gure elkarte mota hau izango da: *Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoak*.

Aliantza mota hauetan parte hartzen duten enpresen negozio-ereduak ez dira lehiakide merkatu-segmentu edo baliabideei dagokienez, eta elkarrekin lanean aritzea bientzako izan daiteke onuragarri.

Gure proiektuak funtziona dezan, bazkide- eta hornitzaile-sare hauekin elkartuko gara:

### **Supermerkatuak:**

Kontuan izango dugu zein den enpresa hauen supermerkatu bakoitzaren tamaina eta hauen eskaintza Euskadi mailan.

- Lidl, Carrefour (Carrefour express), Mercadona, Eroski, Dia.

Supermerkatu hauek beraien produktuen zerrenda emango digute, eta produktu bakoitzaren balore nutrizionalak ere. Hauen helbidea eta kontaktatzeko modua ere agertuko da aplikazioan.

### **Jatetxeak:**

Hiriburu (Donostia, Gasteiz, Bilbo) eta herri handietan (Beasain, Tolosa, Zarautz, Andoain, Bermeo...) dauden jatetxeekin aliantza sortuko dugu, kontuan izanda aplikazioan agertuko diren jatetxeek janari espezializatua eskaintzen dutela (begano, begetariano, gluten gabe, laktosa gabe...)

### **Aplikazioa sortzen lagunduko digun enpresa:**

Gu informatikan adituak ez garenez, kanpoko enpresa bat kontratatuko dugu aplikazioa sortzeko eta sarean jartzeko. Enpresa hau informatikan eta aplikazioak sortzen aditua den enpresa/pertsona izango da. Honen lana aplikazioa sortzea, programatzea, play store-en sartzeta... izango da. Zer informazio jarri, diseinua, aukerak... gure erabakia izango da eta beraiei helaraziko dizkiegu erabaki hauek aplikazioan txertatzeko. Enpresa honen eta gure harremana egokia eta produktiboa dela bermatzeko astero bilerak egingo ditugu.

### **Bakoitzak jarriko dituen funtsezko baliabideak:**

- Supermerkatuak eta jatetxeak: diru ekarpen bat egingo dute guk eskainiko diegun publizitatearen truke. Diru kopuru hau negoziazio bidez zehaztuko dugu.
- Deskarga kopuruaren arabera "play store" eta "app store"-ek diru kantitate jakin bat ordainduko digute.

